



## **Ikasmina DoKS:**

**Gipuzkoako bizitza guztian zeharreko  
ikasketari buruzko dokumentuak**

# **Pertsonak eta ikaskuntza ez formala**

**97. dokumentua**

**2024ko otsaila**



**AURKIBIDEA**

<b>1. Aurkezpena .....</b>	<b>3</b>
1.1. Aurkezpena .....	3
<b>2. Ikasten ari diren gipuzkoarrak.....</b>	<b>4</b>
2.1. Ikasten duten pertsonak.....	4
<b>3. Pertsonak eta ikaskuntza ez formala.....</b>	<b>7</b>
3.1. Ikaskuntza ez-formaleko partaidetza: generoa eta adina .....	7
3.2. Ikaskuntza ez-formala: ikasketa maila eta laneko egoera .....	9
3.3. Ikaskuntza ez-formalerako arrazoiak.....	12
3.4. Ikaskuntza ez-formaleko ekintzen maiztasuna .....	17

# 1. Aurkezpena

## 1.1. Aurkezpena

Gipuzkoak ezagutza lehiakorrean eta dinamikoan oinarritutako ekonomia duen gizarte bihurtu nahi du. Horretarako, uste dugu bizitza osoko ikaskuntza oso tresna garrantzitsua dela; izan ere, pertsonen eta gizartearen hazkunde pertsonala, profesionala eta soziala eskaintzen du.

Helburu horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena eta Proiektu Estrategikoak Departamentuak uste du talentuaren ikaskuntza eta garapena elementu estrategikoa dela aurrerapen eta kohesio sozialean. Bertan, pertsonak izango dira ardatz: sozialki jasangarria den garapen-eredua eraiki nahi duen Lurraldea, pertsonen talentua, erakundeen dinamismoa eta bultzada teknologikoa elkartuz.

Gero eta konplexuagoa, malguagoa den eta interkonektatuago dagoen gizartean, ikaskuntza-prozesuak oso garrantzitsuak dira; are gehiago, pertsonak bizitza osoan landu behar dituzte (pertsonala, zibikoa, soziala edo profesionala), eta horrela, beren ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak mantendu, hobetu eta zabalduko dituzte.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako pertsona helduek (25 eta 74 urte artean) egindako ikaskuntza-jardueraren jarraipena lantzen du. Urtero (urteko lehen hiruhilekoa) egindako kontsultaren emaitzak biltzen ditu eta 2023ko ikaskuntza-jarduerekin lotuta pertsonen gai garrantzitsuetan oinarritzen da.

Dokumentu honek ikaskuntza ez-formaleko partaidetzarekin lotutako emaitzak erakusten ditu denbora-tarte zabala aintzat hartuta. Hala, pandemia aurretik (2018-2019ko batezbestekoa), pandemian zehar (2020-2021eko batezbestekoa) eta gaur egun (2022- 2023) izandako bilakaera zein izan den ikus dezakegu.

## 2. Ikasten ari diren gipuzkoarrak

### 2.1. Ikasten duten pertsonak


#### Gipuzkoan, etengabeko ikaskuntzako parte-hartzeak beheranzko profila du

2022-2023 biurtekoan, Gipuzkoan ez da berreskuratu pandemian zehar galdutako ikaskuntzarako dinamika. Jarraian datorren grafikoan ikus daitekeen moduan, Gipuzkoako biztanle helduek (25-74 urte artekoak) kontsulta aurreko hamabi hilabeteetako batean ikaskuntzako jardueraren batean (formala edo ez-formala) izandako parte-hartzeak beheranzko joera du. Hala, pandemia aurreko urteetan (2018-2019ko batezbestekoa) parte-hartzea % 40,3 ingurukoa zen. Pandemian, balio hori % 39,2 arte murriztu zen (2020-2021eko batezbestekoa) eta aztertutako azken aldian (2022-2023ko batezbestekoa) berriz ere jaitsi egin da, % 38,7n kokatu arte.

Parte hartzeko adierazleetan beheranzko joera horrek agerian uzten du Gipuzkoako helduen ikaskuntza sustatzeko erronka, lurraldearen garapenerako funtsezko zutabeetako bat baita.

### 1. grafikoa. Ikaskuntza iraunkorra egiten duten pertsonak

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Saila

Bizitzan zeharreko ikaskuntzako jarduerak bi ikaskuntza motarekin lotuta daude:

- ikaskuntza formala. Hezkuntza arloak (baimendutako pertsonak eta erakundeak) eskaintzen dituen eta sartzeko baldintzei eta curriculum-edukiei dagokienez araututa dauden ikaskuntza-jarduerari egiten die erreferentzia. Jarduera horien azken helburua titulazio ofiziala lortzea izaten da.
- Ikaskuntza ez-formala. Edozein esparrutan (hezkuntza-erakundea, enpresa eta abar) bideratutako ikaskuntza-jarduerak biltzen ditu; horien helburua ezarritako edukien programa jakinaren arabera ikaskuntzako xede batzuk lortzea izango da, baina amaitzean titulu baten aitortpen ofiziala lortu gabe (dena den, ziurtagiri mota desberdinak jaso daitezke).

## 2. grafikoa Ikasten duten pertsonak, ikaskuntza motaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Saila

Bereizketa hori kontuan hartuta, eta ikaskuntza formaleko parte-hartzeari dagokion informazioa aintzat hartuta, 2022-2023 biurtekoan, Gipuzkoako hamar heldutik batek (% 10,5) ikaskuntza formaleko jardueraren batean parte hartu du. Ratio hori aurreko aldietan erregistratutakoa baino pixka bat altuagoa da.

Aldiz, ikaskuntza ez-formaleko parte-hartzeak (% 31,2) beheranzko joera arina du, eta jardueraren guztizkoarekiko duen pisu espezifiko delako eta, datu horren eraginez da beheranzkoa Gipuzkoako helduen ikaskuntzako parte-hartzea.

# 3. Pertsonak eta ikaskuntza ez formala


## 3.1. Ikaskuntza ez-formaleko partaidetza: generoa eta adina

### Ikaskuntza ez-formaleko parte-hartzeak beheranzko joera txikia izan du azken urteotan

2022-2023 biurtekoan (batezbestekoa) Gipuzkoako hamar heldutik batek adierazi du kontsulta aurreko hamabi hilabeteetan ikaskuntza ez-formaleko jardueraren batean parte hartu duela. Parte-hartze ratio horrek beheranzko ibilbidea zehazten du. Balio altuena (% 35,5) 2018-2019 biurtekoan (batezbestekoa) jaso zuen, eta baxuena, azken biurtekoan (% 31,2). Hala, ehuneko 4,3 puntuko aldea dago.

Generoaren ikuspegitik egindako analisiaren arabera, gizonezkoen kolektiboak ikaskuntza ez-formalean parte-hartze handixeagoa duela ikus daiteke (% 32,1 vs. % 30,3). Bai pandemian, bai aurreko urteetan erregistratutako datuen alderantzizko emaitza da hori. Izan ere, garai horietan emakumezkoek parte-hartze handiagoa zuten gizonezkoek baino.

### 3. grafikoa ikaskuntza ez-formala egiten dutenak, sexuaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Saila

## Ikaskuntza ez-formaleko partaidetzak behera egiten du pertsonen adinak gora egin ahala


2022-2023 biurtekoan (batezbestekoa) 25 eta 44 urte arteko Gipuzkoako hamar pertsonatik lauk baino gutxiago egin du ikaskuntza ez-formaleko jardueraren bat kontsulta egin aurreko hamabi hilabeteetan. Emaitza hori pixka bat baxuagoa da 45 eta 54 urte arteko taldean (% 35,9), eta nabarmen jaisten da 55 eta 64 urte arteko pertsonen artean (% 25,3); are gehiago, 65 eta 74 urte artekoen artean (% 14,9). Ondorioz, ikaskuntza ez-formaleko partaidetzan gazteenen eta helduenen artean dagoen arrakala ehuneko 24,1 puntukoa da.

Ondorioz, ikaskuntza ez-formaleko jardueratan parte hartzeko garaian, pertsonen adina faktore erabakigarria dela baieztatu da.

Edonola ere, aurreko aldiarekiko bilakaera erakusten duenez:

- Bi kolektibo gazteenen artean, partaidetzan jaitsiera gertatu da. Gainera, 35-44 urteko taldean, atzerakada berri honekin, pandemia aurreko datuekin alderatuta, haien partaidetzan ehuneko 10,9 puntuko galera metatu da.
- 45 urteko eta gehiagoko pertsonak ikaskuntza ez-formaleko jardueretan duten partaidetza egonkor mantendu da, edo are, pixka bat igo da.

### 4. grafikoa ikaskuntza ez-formala egiten dutenak, adinaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Saila



### 3.2. Ikaskuntza ez-formala: ikasketa maila eta laneko egoera

#### Pertsonen hezkuntza maila erabakigarria da ikaskuntza ez-formalean duten partaidetzari dagokionez

Ikaskuntza orokorarekin gertatzen den moduan, herritarrek lortutako ikasketa mailak eragin nabarmena du ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartzeko garaian. Hala, pertsonak lortutako ikasketa mailak gora egin ahala, ikaskuntza ez-formaleko jardueretan duten partaidetza ere igo egiten da.


Hain zuzen ere, 2022-2023 biurtekoan, hirugarren mailako ikasketak dituzten Gipuzkoako helduen % 44,9k dio ikaskuntza ez-formaleko jardueraren bat egin duela azken urtean. Tasa hori % 25era murrizten da bigarren mailako ikasketak dituzten herritarren artean. Lehen mailako ikasketak dituzten helduen artean, ratioa % 13,6ra jaisten da. Hala, hezkuntza maila goreneko eta baxueneko pertsonen artean ikaskuntza ez-formaleko jardueretan duten partaidetza-arrakala ehuneko 31,3 puntukoa da.

Pandemia aurreko emaitzekin alderatuta (2018-2019ko batezbestekoa) goi mailako ikasketak dituzten pertsonen partaidetza jaitsi egin da (ehuneko -6,2 puntu), baita bigarren mailako ikasketak dituztenena ere (ehuneko -6,6 puntu). Aldiz, hezkuntza maila baxueneko pertsonak partaidetza-ratioa mantendu egin dute (ehuneko +0,4 puntu).



### 5. grafikoa ikaskuntza ez-formala, ikasketa mailaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Saila


### Ordaindutako enplegua duten pertsonak dira ikaskuntza ez-formalean gehien parte hartzen dutenak

Pertsonen lan-egoerari eta ikaskuntza ez-formalarekin duten loturari dagokienez, ordainpeko enplegua duten pertsonak egiten dituzte gehien bat ikaskuntza ez-formaleko jarduerak. Zehatzago, enplegua duten Gipuzkoako helduen % 38,9k ikaskuntza ez-formaleko jardueraren batean parte hartu du azken hamabi hilabeteetan. Ratio hori % 28,2ra jaisten da langabetuen kasuan, eta % 17ra arte beste egoera batzuetan daudenen artean –erretiratuak, ikasleak, ordainpeko lan-merkatura sartu gabeak–.

2018-2019 aldiarekin alderatuta, hiru kolektiboek atzerakada erakusten dute partaidetzan. Ordainpeko enplegua dutenek erregistratu dute jaitsierarik handiena (ehuneko -6,3 puntu); jarraian, langabetuek (ehuneko -5,6 puntu), eta azkenik, beste egoera batzuetan daudenek (ehuneko -1,2 puntu).

6. grafikoa ikaskuntza ez-formala, laneko egoeraren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Saila

### 3.3. Ikaskuntza ez-formalerako arrazoiak

#### Arrazoi profesionalak, ikaskuntza ez-formalean parte hartzeko motibazio nagusia

Ikaskuntza ez-formaleko jarduerak egiteko pertsonak emandako motibazioen artean, arrazoi profesionalen proportzioa askoz ere handiagoa da arrazoi pertsonalena baino. Hain zuzen ere, azken hamabi hilabeteetan ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartu duten Gipuzkoako lau heldutatik ia hiruk arrazoi profesionalak argudiatu ditu jarduera hori egiteko. Aipatu behar da emaitza hori aurreko aldietan ikusitakoa baino handiagoa dela; beraz, hurrengo kontsultetan berretsiko da motibazio profesionalak testuinguru horretan gero eta garrantzi handiagoa hartzen jarraituko ote duen.

Datuak generoaren ikuspegitik aztertzen baditugu:

- Emakumeek zein gizek aipatu dute ikaskuntza ez-formaleko jardueraren batean parte hartzeko arrazoi nagusia profesionala dela: bi kasuetan, ehuneko hori hamar heldutik zazpikoa baino gehiagokoa da.
- Gainera, bi kolektiboen kasuan, azken urteotako bilakaerak motibazio profesionalean goranzko joera gertatu dela erakusten du; aldiz, motibazio pertsonalak beheranzko joera izan du.
- Horrez gain, eta egindako kontsultetan egiaztatu ahal izan den moduan, ikaskuntza ez-formaleko jarduera batean parte hartzeko garaian motibazio pertsonalak garrantzi handiagoa du emakumeen artean gizonen artean baino.

## 1. taula Ikaskuntza ez-formalerako motibazioa, generoaren arabera

Ikaskuntza ez-formalean parte hartu duten 25 eta 74 urte arteko biztanleen ehunekoa (%)

	Arrazoi profesionalak	Arrazoi pertsonalak
<b>GUZTIRA</b>		
Pandemia aurretik (2018-2019ko batezbestekoa)	70,0	30,0
Pandemia (2020-2021eko batezbestekoa.)	70,6	29,4
Pandemia ostea (2022-2023ko batezbestekoa)	72,2	27,8
<b>Emakumeak</b>		
Pandemia aurretik (2018-2019ko batezbestekoa)	68,2	31,8
Pandemia (2020-2021eko batezbestekoa.)	69,5	30,5
Pandemia ostea (2022-2023ko batezbestekoa)	70,8	29,2
<b>Gizonak</b>		
Pandemia aurretik (2018-2019ko batezbestekoa)	72,0	28,0
Pandemia (2020-2021eko batezbestekoa.)	71,8	28,2
Pandemia ostea (2022-2023ko batezbestekoa)	73,6	26,4

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Saila

Ikaskuntza ez-formalean parte hartzeko motibazioetan adinaren arabera dauden aldeei dagokienez, 65 urte arte arrazoi profesionalak eragindako partaidetza nabarmen handiagoa dela ikus dezakegu.

Halaber, 35 eta 44 urte arteko pertsonak argudiatzen dute gehien bat motibazio profesionala ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartzeko (% 81,6 izan dira 2022-2023ko batezbestekoan).

Azkenik, 65 urtetik gorako pertsonak (batez ere erretiratuek osatzen dute kolektibo hori), ia kasu guztietan, arrazoi pertsonalak argudiatu dituzte ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartzeko.

## 2. taula Ikaskuntza ez-formalerako arrazoiak, adinaren arabera

Ikaskuntza ez-formalean parte hartu duten 25 eta 74 urte arteko biztanleen ehunekoa (%)

	Arrazoi profesionalak	Arrazoi pertsonalak
<b>25-34 urte</b>		
Pandemia aurretik (2018-2019ko batezbestekoa)	72,1	27,9
Pandemia (2020-2021eko batezbestekoa.)	71,1	28,9
Pandemia ostea (2022-2023ko batezbestekoa)	74,2	25,8
<b>35-44 urte</b>		
Pandemia aurretik (2018-2019ko batezbestekoa)	82,1	17,9
Pandemia (2020-2021eko batezbestekoa.)	86,2	13,8
Pandemia ostea (2022-2023ko batezbestekoa)	81,6	18,4
<b>45-64 urte</b>		
Pandemia aurretik (2018-2019ko batezbestekoa)	68,2	31,8
Pandemia (2020-2021eko batezbestekoa.)	66,8	33,2
Pandemia ostea (2022-2023ko batezbestekoa)	74,4	25,6
<b>65-74 urte</b>		
Pandemia aurretik (2018-2019ko batezbestekoa)	5,6	97,2
Pandemia (2020-2021eko batezbestekoa.)	10,5	94,7
Pandemia ostea (2022-2023ko batezbestekoa)	7,5	92,5

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Saila

**“Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak eskuratzea”, “Nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko” eta “Nire egunerokorako ezagutza edo teknika erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzea” dira ikaskuntza ez-formalerako arrazoi nagusiak**

Gipuzkoako helduek ikaskuntza ez-formaleko jarduerak egitearekin lotuta ematen dituzten argudioei erreparatzen badiegu, azken kontsultan honako hau nabarmendu behar da:

- Ikaskuntza ez-formalean parte hartzeko arrazoi profesional ugarien artean, *“lana hobeto egitea eta/edo aurreikuspen profesionalak hobetzea”* aukera da gainerakoen artean bereziki nabarmentzen dena (% 73,5). Bigarren eta hirugarren lekuan, nahiz eta garrantzi baxuagoa izan, hauek daude: *“ziurtagiria lortzea”* (% 32,5) eta *“lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea”* (% 21,6). Biak daude laneko ibilbidea hobetzearekin lotuta.
- Ikaskuntza ez-formaleko jarduerak egiteko arrazoi pertsonalen artean, honako hauek daude: *“interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak edo teknikak eskuratzea”* (% 86,4) eta, atzetik, distantzia apur batera, *“nire egunerokorako*

erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak eskuratzea" (% 61,2) eta, azkenik, "jendea ezagutzeko/dibertsioagatik" (% 16,9).

### 3. taula Ikaskuntza ez-formalerako arrazoi espezifikoak

Ikaskuntza ez-formalean parte hartu duten 25 eta 74 urte arteko biztanleen ehunekoa (%)

	Pandemia aurretik - 2018-2019ko batezbestekoa	Pandemia 2020-2021ko batezbestekoa	Pandemia ostea 2022-2023ko batezbestekoa
<b>Arrazoi profesionalak</b>			
Lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko	75,7	74,9	73,5
Ziurtagiria lortzeko	37,1	37,0	32,5
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzeko	24,3	19,8	21,6
Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	16,3	15,5	12,3
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	14,2	14,1	10,7
Nire negozioa sortzeko	6,3	6,3	6,4
<b>Arrazoi pertsonalak</b>			
Interesgarria iruditzen zaidan arloan ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	84,6	77,2	86,4
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzeko	61,5	55,9	61,2
Jendea ezagutzeko/dibertsioagatik	24,8	22,2	16,9

Hainbat erantzun

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Saila

Hurrengo taulan ikus dezakegun moduan, ez da alde handirik ikusten ikaskuntza ez-formalean parte hartzeko motibazioen ordenan generoaren ikuspegiari dagokionez. Hala:

- Arrazoi profesionalei dagokienez, emakumeen % 71,8k eta gizonezkoen % 75,4k aipatu du ikaskuntza ez-formaleko jarduerak egin dituztela "nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko".

Gainera, bi kolektiboen kasuan, "ziurtagiria lortzea" arrazoi dago bigarren postuan; hau da emakumeen % 30,2k eta gizonen % 36,2k aipatu du arrazoi hori.

- Ikaskuntza ez-formaleko jarduerak egiteko arrazoi pertsonalen artean, bi kolektiboen artean motibazio nagusia "Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak eskuratzea" da. Argudio hori emakumeen % 85,3k eta gizonen % 87,4k aipatu du.

#### 4. taula Ikaskuntza ez-formalerako arrazoi espezifikoak, generoaren arabera

Ikaskuntza ez-formalean parte hartu duten 25 eta 74 urte arteko biztanleen ehunekoa (%)

	Pandemia aurretik - 2018-2019ko batezbestekoa	Pandemia 2020-2021ko batezbestekoa	Pandemia ostea 2022-2023ko batezbestekoa
<b>Emakumeak</b>			
<b>Arrazoi profesionalak</b>			
Lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko	73,5	73,9	71,8
Ziurtagiria lortzeko	35,3	39,8	30,2
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzeko	25,1	21,2	21,1
Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	17,9	16,7	11,9
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	15,9	16,1	10,8
Nire negozioa sortzeko	7,8	7,8	6,9
<b>Arrazoi pertsonalak</b>			
Interesgarria iruditzen zaidan arloan ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	85,0	77,3	85,3
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzeko	65,5	57,9	61,0
Jendea ezagutzeko/dibertsioagatik	27,1	23,8	15,9
<b>Gizonak</b>			
<b>Arrazoi profesionalak</b>			
Lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko	78,2	76,0	75,4
Ziurtagiria lortzeko	39,0	34,5	36,2
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzeko	23,3	18,7	22,0
Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	14,6	14,5	12,5
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	12,4	12,2	10,7
Nire negozioa sortzeko	5,0	5,0	5,9
<b>Arrazoi pertsonalak</b>			
Interesgarria iruditzen zaidan arloan ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	84,2	76,9	87,4
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzeko	57,2	54,1	61,6
Jendea ezagutzeko/dibertsioagatik	22,2	20,6	17,5

Hainbat erantzun

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Saila



### 3.4. Ikaskuntza ez-formaleko ekintzen maiztasuna

#### Gipuzkoako helduen % 13,7k hartu du parte ikaskuntza ez-formalean azken lau asteetan

Ikasteko maiztasunari dagokionez, azterketak denboraren arabera bi une jasotzen ditu: alde batetik, kontsulta egin aurreko hamabi hilabeteetan egindako ikaskuntzak eta, bestetik, aurreko lau asteetako (hau da, ikaskuntza jarraitua).

Ikaskuntza jarraituan (azken lau asteak) arreta finkatuta, Gipuzkoako helduen % 13,7k hartu du parte ikaskuntza ez-formal jarraituko jardueretan 2022-2023 biurtekoan (batezbestekoa). Beraz, ikaskuntza ez-formaleko jardueretako partaidetza pandemia aurreko mailak berreskuratzen ari dira, bai emakumeen artean, bai gizonen artean. Dena den, eta kontsultetan ikus daitekeen moduan, partaidetza pixka bat handiagoa dute emakumeek (ehuneko +1,8 puntu).

#### 5. taula Ikaskuntza ez-formaleko maiztasuna, generoaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehuneko (%)

	Pandemia aurretik - 2018-2019ko batezbestekoa	Pandemia 2020-2021eko batezbestekoa	Pandemia ostea 2022-2023ko batezbestekoa
<b>Azken 12 hilabeteak</b>			
Guztira	35,5	33,0	31,2
Gizonak	33,8	32,9	32,1
Emakumeak	37,2	33,1	30,3
<b>Azken 4 asteak</b>			
Guztira	13,7	9,5	13,7
Gizonak	12,5	9,1	12,8
Emakumeak	14,9	10,0	14,6

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Saila

Adin taldeen arabera, 35 eta 44 urte arteko pertsonak dira ikaskuntza ez-formaleko jardueretan partaidetza-ratio jarraitu altuena dutenak (% 18,3). Jarraian, 25 eta 34 urte artekoak (% 15,4) eta adin nagusieneko bi taldeak (% 12,8 eta % 7,6, 45-64 urtekoak eta 65-74 urtekoak, hurrenez hurren) daude.


**6. taula Ikaskuntza ez-formaleko maiztasuna, adin-taldeen arabera**

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	Pandemia aurretik - 2018-2019ko batezbestekoa	Pandemia 2020-2021ko batezbestekoa	Pandemia ostea 2022-2023ko batezbestekoa
<b>Azken 12 hilabeteak</b>			
25-34 urte	41,0	44,8	39,0
35-44 urte	49,0	42,5	38,1
45-64 urte	33,8	29,9	30,6
65-74 urte	15,0	14,9	14,9
<b>Azken 4 asteak</b>			
25-34 urte	19,2	12,3	15,4
35-44 urte	15,5	12,8	18,3
45-64 urte	12,3	8,4	12,8
65-74 urte	9,4	5,0	7,6

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Sustapen Ekonomikoaren eta Proiektu Estrategikoen Saila



<b>Izenburua:</b>	Pertsonak eta ikaskuntza ez formala 97. dokumentua, 2024ko otsaila
<b>Sustapena eta finantzaketa:</b>	Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia 
<b>Egilea:</b>	IKEI, research & consultancy S.A.
<b>Landa lana:</b>	Datakey, S.A.

